

# JOSÉ MANUEL SÁNCHEZ RON

Zientziaren historialaria eta Espainiako Errege Akademiako kide



Letretan aditu direnek lortzen duten lekua du, Espainiako Errege Akademiaren bere letra propioa eman diote eta gaztelaniaren zuzentasunaren zaindari da, beraz. Baina harritzekoa bada ere, José Manuel Sánchez Ron zientzia gizona da, fisika ikasi zuen eta Zientziaren Historiaz artikulua eta liburuak idatzi ditu. Arrotz sentitzen da askotan, zientifikoari eman ohi zaion lekutik kanpo baina akademiaren artean, Zientzia maite duten letra gizon asko ezagutu omen ditu. Zientziaz orohar dakiguna ere, gehiegi ez dela azpimarratzen du eta ez da isiltzen gobernuen ahalegin falta salatzen orduan. Bigarren Mailako Hezkuntzan egin beharko litzateke bere ustez, benetako ahalegina ezagutza zientifikoaren alde.

di utzia izango nuen lana. Desertuan ari naiz predikari, beharbada, baina oasiak badaude. Espainia bera, orohar hartuta, desertua ote den? Ez nuke horrenbeste esango. Baina zenbait esparrutan, berebiziko garrantzia duten esparrutan, maila politikoan, adibidez, edo gobernu mailan, bada desertu-antzeko. Gobernuak, parlamentuek eta erakundeek herritarren ordezkariak dute, beraie-na da berrikuntzan ahalegina egiteko boterea eta nire iritzitan, derrigor izan beharko litzateke aholkulari politikoak eta departamentu zientifikoak beraien ondoan. Baina oso gutxitan gertatzen da hori. Hala ere, nik, zorionez, guzti horretatik ihes egiteko gaitasuna daukat, egiten dudana oso-oso gustuko dudalako

har da eta geuk izan behar dugu lehenak, orijinalenak. Edozein estaturentzat Zientzia egitea ez da aski, munduko zientziarik onena egin behar da eta Espainian hori ez da horrela. Nik ez dut uste, behintzat. Galdera zuzena hau da: ze distantzia dago benetan zientzia sortu eta zientziaren bidez aberastasuna lortzen duten herrien eta Espainiaren artean? Nire ustez, beti egon den berbera. Kontrakoa esatea demagogia da.

### **Nahiako zenuke beste herrialde horietako hiritar izan?**

Ez, ez. Kritikak kritika, bizi naizen lekuan gustora bizi naiz. Egon izan naiz Ingalaterran eta Estatu Batuetan eta miresten ditut baina ez naute zoriontsu egin. Estatu Batuetan asko gustatzen

## “Zientifikoek ez dute behar den zuzentasunarekin hitz egiten”

### **Zientziaren zabalkundearen lan egitea predikari ibiltzearen antzeko da?**

Antzeko zerbait. Espainiako gizartearen, herritar gehienentzat, kultura ez da Zientziaren parte eta Administrazioaren aldetik ere, asko falta da egiteko. Gabezia ikaragarriak daude. Nire liburuetan eta artikuluetan beti ibiltzen naiz, esan eta esan, zientzia atsegina dela, zientziak dibertitu egiten duela, zientzia garrantzi-garrantzitsua dela... eta zentzu horretan, ba bai, predikari sentitzen naiz, sermoia botatzen. Badu alde hori nire lanak, zer egingo diogu, horixe da egoera.

### **Inork egiten ote dio jaramonik sermoiarri edo desertuan predikatzen sentitzen duzu zeure burua?**

Nor edo nork entzungo ez balu edo entzuten duela pentsatuko ez banu, aspal-

eta biziki gustatzen zait nirekin ikasi duten pertsonak aurkitzea, zientzia ulertzen eta maitatzen lagundu badiet, pozik geratzen naiz, asebeteta.

### **Egoerak egin ote du hoherantz azken urteotan?**

Tira, produkzio zientifikoak, nolabait esatearren, hobetu da, bai. Ederra litzateke kontua egin izan ez balu! Baina kontua ez da egoera hobetu duen ala ez duen, aurrera egin bada ere. Kontua da, hasteko, zientifiko gazteenek ba ote duten beraien gaitasunak aurrera ateratzeko modurik. Eta bigarren, zientzia ez da soilik jakituria hutsa, kultura besterik gabe. Zientzia konpetizioa da, lasterketa. Estaturentzat berebizikoa den neurrian, besteak baino lehenago iristea inportantea da, edozein lorpen, industria sare produktiboan sartzen jakin be-

zitzaidan jendearen jarrera baina diruaren kultura da eta bizimodu oso lehiakorra dute eta hori ez, hori ez zait gustatzen. Gainera estatu-inperioaren zera hori dute buruan, ideia hori, eta ez da batere nire gustokoa.

### **Espainian zientziaren egoera aldatu dadin, zer behar da, denbora, beste belaunaldi batzuk agertu eta gauzak hobeto egin arte?**

Aldaketa arinik nekez gertatuko da. Horregatik da hain garrantzitsua beti esaten dena eta beste behin ere esan behar dena, estatu ituna sortzea, denak ados jarriko dituen eta kultura politiko bateratuaren parte izango dena. Zientzia arloan posible dela uste dut. Baina ekin egin behar zaio proiektu horri eta denbora behar du, ez da hain erraza. Arinago lortzen da Joko Olinpikoetako

txapelduna, Nobel Sariduna baino. Baina interesa egon denean sortu dira bai sortu atleta olinpikoak eta txapeldunak! Absurdoa da. Azken baten kirola baino ez da, joku hutsa, kultur baliorik gabea... Zientziak, aldiz, aberastasunarekin du harremana, ongizate intelektualarekin, jakituria eta jakituria ematen duen askatasunarekin, ekonomia eta osasun publikoarekin. Ahalegin nahikorik, ostera, ez da egiten. Zientziak kulturaren parte izan behar du eta horren ardura gobernuena da. Batzuetan egin zaio arreta Zientziari baina beti egiten zaio zientzialariari beste batzuei baino kopla gutxiago, idazleei, artistei edo zine zuzendariei... Zientzia aspergarriagoa dela esaten da eta zailagoa dela artea edo beste diziplina horiek baino baina zaila bada ere, eta onartzen dut izan daitekeela, ez da aspergarria, inolaz ere. Egia da entrenamendua behar dela Zientzia ulertzeko baina berriz diot, Zientziak dibertitu egiten duela. Konparatuko duzu futbolarien esanekin! Beti ari dira eta, gauza berbera errepikatzen! Hori da hori aspergarria.

**Zientifikoek ere izango duten zuk hain gordin deskribatzen duzun egoera horretan bere ardura, ez soilik herritar edo Administrazioak.**

Jakina. Zientifikoak gizartearen aurrean aurkeztu behar du bere burua eta hiritar izaten ahalegindu behar du. Bere ahotsa entzun arazi, arlo kultural eta politikoan. Egoerak hobera egin du baina ez behar bezain beste. Plaza publikoan leku gehiago behar dute izan zientifikoek. Horretarako zer esana izan behar dute, laborategitik kanpora, eta hori konplikatu da. Zenbait gaitasun hobetu behar dituzte baina ez dute uste gehiegi eskatzea denik zientifiko bati hobeto idatz dezala edo ganoraz hitz egin. Gizartean lekua izan behar dute zientifikoek, beste herrialde batzutan gertatzen den bezala. Zintotasuna eskatu behar zaie, gainera, eta hori ez dute esaten soilik Espainiako zientifikoei buruz, ez pentsa. Zenbatetan agintzen den hau edo bestea eta gero ez den betetzen! Zintzoagoak izan behar dira, artezagoak egiten dutenaren egia kontatzeko orduan.

**Zientziak, beraz, ba ote du etorkizunik Espainian?**

Galderari buelta emanda erantzungo ditzut. Ez dute uste Espainiak zientziarik

“Zientzia sortu eta Zientziaren bidez aberastasuna lortzen duten herrialdeen eta Espainiaren arteko distantzia gero eta laburragoa denik ez dago batere argi”

“Zientzia egiten dutenek zenbait gaitasun hobetu behar dituzte baina ez dute uste zientifiko bati hobeto idatz dezala edo ganoraz hitz egin dezala eskatzea gehiegi denik”

“Bigarren Mailako Hezkuntzan, hortxe konpondu behar dira zientziaren inguruko gabeziak. Herri batek duen kultur maila karta jokoa bada, hortxe banatzen dira kartak”

gabe etorkizunik duenik. Ez behintzat, etorkizun onik. Ez bada zientzia erabiltzen gaitasun ekonomiko eta industria gaitasuna hobetzeko, gauzak ez dira bide onetik joango. Etorkizun bakarra zerbitzuak ematen dituen herrialdea izatea, horixe izango du eta hori epe luzean mantentzea zaila da.

**Beste era bateko etorkizuna nahiko zenuke baina kostako da.**

Zinez kostatu ere. Begira ze tranpa egiten diguten. Zera esaten digute, atzerriko aldizkari zientifikoetan idazten duten zientzialari espainiarrak gero eta gehiago direla baina hori tranpa da. Zientzia kultur moduan ulertuta gauza bat baita eta beste bat, oso desberdina, Zientzia produkzio lehiakorren alorrean. Hor ikusten ditut nik benetako gabeziak.

**Zer egin beharko luke maila zientifiko izan onargarria nahi duen herritar batek?**

Gutxien gutxieneko tresnak beharko lituzke, jakituria maila orokorra. Pertsona batek zerbait jakin behar du Newtoni buruz, Lavoisier, Maxwell edo Einstein nortzuk ziren eta ze lan egin zuten jakin beharko luke. Eta ez dakienak argi euki beharko luke neurri baten erren dabilela, ez dela erabat jantzia. Bigarren Mailako Hezkuntzan, hortxe konpondu behar lirateke halako gabeziak. Herri batek duen kultur maila karta jokoa bada, hortxe banatzen dira kartak.

**Akademiaren kide zara, zure lana hizkuntzaren zaindari izatea ere bada, beraz.**

Sartu nintzenetik beste zientifiko batzuekin elkarlanean aritu naiz, bereziki zera egin dugu, hiztegi zientifiko eta teknikoari buruzko batzordea osatu. Gizarteak ezin du teknologia eta zientziari bizkarra emanda bizi. Ez dakit jendea konturatzen den ala ez baina ezin da Zientzia alde batera utzi, ez da posible. Besteak beste, gizartea bera Zientzia eta Teknologiaren eskutik aldatzen delako. Ohikoa da hiztegi berria sortzea bi alor horietan eta ez bakarrik adituentzat erabilgarria den hiztegia, gainera, kalean dagoena, baino. Pentsa, adibidez, informatikarekin zer gertatzen den, denok erabiltzen dugu terminologia tekniko informatikaz ari garenean. Akademiaren hiztegian, hiztegi zabal horretatik hitz batzuk soilik sartzen dira, jakina.

Eguneroko bizitzarekin harremana dutenak, orokorrenak. Pentsa bestela, hegazkin baten piezak banan-banan idatzita soilik, hortxe gure hiztegi bakar bat osatzeko beste. Baina era berean, kontuan izan behar da badela beste alderdi bat ere Akademiaren lanean. 1713an sortu zenean egin zuen lehen hiztegia. XVIII. mendeaz ari gara! Orduetik hona pentsa ze hiztegi zabala osatu duen. Hori etengabe zuzendu eta moldatu behar da, definizioz-definizio zorrotz begiratuta. Eta zientziaren arloan eta arlo teknikoan lan itzela da hori.

**Ingelesaren eragin handia du hizkuntza zientifikoak?**

Ingelesetik datorren hitz asko eta asko erabiltzen dira, jakina, alor guztietan. Ingelesa da munduan harremanetarako erabili ohi den hizkuntza eta normala da hiztegiaren horren eragina nabaritzea. Egia esateko, posible da zientziari buruz gaztelania hutsean hitz egitea baina ez da hain erraza. Nire ustez zientifikoak jakin egin behar du zorra duela gizartearekin eta gizartearen parte izateko, hizkuntza egokia erabili behar duela. Nire kasuan, horrek gaztelania zaintzea esan nahi du eta ahalik eta txukunen erabiltzea. Zientifikoak teatrorra joan behar du, liburuak eta egunkariak irakurri behar ditu... munduan bizi behar du eta mundua bera eta bere hizkuntza ezagutu behar ditu. Bestela pertsonaia xelebrea baino ez da izango.

**Zientifikoek ongi erabiltzen dute hizkuntza?**

Denetarik dago baina orohar ez, ez dute uste. Hobetu egin beharko lukete. Ez dute esaten beraien lan osoa gaztelania hutsean argitaratu behar dutenik baina badute zer hobetarik.

**Herritarrek, orohar, ezagutza zientifikoa falta dutela esaten duzue baina, zure Akademiako kideen artean maila egokia da?**

Ba, begira akademikoaren artean Zientziarekiko abegikortasuna aurkitu dut. Badituzte gabeziak, bai, baina jakitun dira, badakite gabeziak direla eta hori ez pentsa hain erraz aurkitzen denik beste leku batzuetan. Filologoak daude Akademiaren, lexikologoak, nobelagileak, poetak. Eta jarriko dizut adibide polita: nire azken aurreko liburua Antonio

Mingoterekin egin nuen. Bere hezkuntza zientifikoa ez da oso zabala baina jakin-go bazenu proiektu honetan ze ikuspuntu zabala izan duen eta zer nolako interesa erakutsi duen. Oso pozgarria izan da niretzat.

**Gauza bitxia bada ere, Hizkuntzaren Akademia baten egin zaituzte kide, Zientzia Akademia baten baino lehenago. Zer dela eta?**

Hasteko, ez naiz zientifiko, hori argi esan nahi dut. Zientziaren historiak idazten duen akademikoa naiz. Egia da nire antzeko gutxi egon direla Errege Akademia. Lehen historialaria naizela uste dut.

**Lehenbizi Hizkuntzaren Akademiaren egoteak eta gero Zientzietakoan, zer esan nahi du, zientifikoentzat zuk egiten duzun zabalkunde ahalegina bigarren mailako kontua dela?**

Bai. Ni ez naiz zientifiko orain. Eta profesionaltasunez Historia, Filosofia edo Zientziaren Soziologia egin nahi duenak ezin du era berean zientifiko lanetan aritu. Zientifikoaren artean eta ez dute nigatik esaten, gutxietsi egiten dira Zientzia arloan aritzen direnak baina ez zientifiko, Zientzia egiten, baizik eta Historiaren ikuspuntutik nire kasuan bezala edo Filosofiaren ikuspuntutik.

**Eta akatsa irudituko zaizu hoti, jakina.**

Bai, ez baitago inolako lehiarik bien artean. Zientziaren Historiak ekarpen handia egin liezaioke Zientziari eta ez bakarrik Zientzia hobeto uler dadin, baizik eta zientifikoek beraiek euren lan diziplina hobe uler dezaten. Hara, adibide bat jarriko dizut. Nik mekanika kuantikoa ikasi nuen karreraren eta klasera joan nintzen, ikasi nuen azterketak gainditzeko ikasi beharreko guztia eta gutxi gora behera badakit gai hortaz. Baina egia esateko, ez nuen benetan ulertu. Niretzat fisika kuantikoa miraria zen, funtsa ez nuen ulertzen. Ba, begira, momentu hartan eskura euki izan banu Fisika Kuantikoaren Historia izeneko liburua, uste dut irakasgaia hobeto ulertuko nukeela eta beraz, fisiko hobea izango nintzatekeela. //

